

EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko VII. azterlana 2024

Laburpen Exekutiboa

Dokumentu honek 2024ko urrian **bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen zenbaketaren VII. edizioaren** emaitzak laburbiltzen ditu. Ikerketa honek aurrerapen handia ekarri du, **espazio eta une jakin batean**, egoera horretan dauden pertsonen kopuruaren ezagutza eta haien oinarritzko ezaugarri eta beharren ezagutza.

1. Helburuak eta metodologia

Azterlan hau gaueko zentsu-zenbaketen metodologian oinarritzen da. Kontaketa horiek **gau jakin batean** egiten diren tokian tokiko informazio bilketan oinarritutako ikerketak dira, eta **bizitegi-bazterketa egoera larri jakin batean** dauden pertsona guztiak detektatzean datza. Aztergai dugun ikerketak kalean, bizitzeko egokiak ez diren beste leku batzuetan eta ostatua duten zentroetan dauden egoerak jorratzen ditu.

Oinarri horretatik abiatuta, ikerketa honen **helburu nagusiak** honako hauek izan dira: a) bizitegi-bazterketa egoeran zenbat pertsona dauden jakitea; b) haien ezaugarri soziodemografiko nagusiak, egoera eta bizibaldintzak ezagutzea; eta c) 2012az geroztik hautemandako joera nagusiak eboluzioaren ikuspegitik aztertzea.

Galdera horiei erantzuteko, **bi zenbaketa paralelo egin dira, bata kalean eta bestea ostatua duten zentroetan, eremu geografiko eta kokapen ezberdinekin:**

- Gauez **kalean egindako zenbaketan 30 udalerri** hartu dute parte, eta horien artean daude 20.000 biztanletik gorako 18 udalerri (Arrasate, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Donostia, Durango, Eibar, Erandio, Errenteria, Galdakao, Getxo, Hernani, Irun, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Gasteiz), eta tamaina txikiagoko beste 12 udalerri (Bergara, Ermua, Hondarribia, Laudio, Legazpi, Lekeitio, Markina-Xemein, Oiartzun, Ondarroa, Pasaia, Tolosa eta Urduña).

Populazioari dagokionez, Euskadin bizi diren biztanleen %70 dira.

- **Ostatua duten zentroen** zenbaketan, azterketaren eremu geografikoa hiru lurralde historikoak izan ziren. Guztira, **ostatua zuten 404 zentro** sartu zituzten azterketan; horietatik 59 Araban zeuden, 168 Bizkaian eta 177 Gipuzkoan. Datuak bildu ziren unean, parte hartu zuten zentroek, guztira 48 euskal udalerritan banatuta, 3.354 plaza zituzten guztira. Horietatik, 2.779 Zorroaren Dekretuaren zerbitzu edo zentroei zegozkien, 1.693 udal eskumenekoak eta 1.086 foru eskumenekoak.

Aurtengo edizioan, ezinbestekoa izan da, aurreko zenbaketetan bezala, ehunka boluntarioren laguntza, urriaren 23tik 24rako gauean **udalerrietako eremu urbanizatu eta irisgarrienetan** ibiltzeaz arduratzen baitira. 2024an **631 boluntariok** parte hartu dute.

Horiekin batera, sarbide zaileko guneetara joateaz arduratzen diren **151 profesionalak** ere lagundu zuten. Oro har, bizitegi-bazterketa larriko egoeran zeuden pertsonak (**abandonatutako eraikinak, baso- edo natura-guneetako kanpin-dendak, lonjak...**) aurrez detektatu ziren lekuen berri izan ondoren, profesionalak haiengana joan ziren urriaren 21etik 25era, 23ko gauean bertan gaua igaro zutenei buruzko informazioa jasotzera.

Kualifikatu gisa izendatu dugun ikuspegi hori 2024an txertatu da lehen aldiz.

Ostatu-baliabideen zenbaketari dagokionez, **zentro bakoitzaren kudeaketaz arduratzen ziren langileen lankidetzari** esker egin ahal izan zen. Pertsona horiek arduratu ziren zentroaren okupazio datuak jasotzeaz eta ostatu hartu zutenei elkarrizketa pertsonalak egiteaz. Landa-lana egin aurretik, **koordinazio teknikoko** lan bat egin zen administrazio publikoetako eta hirugarren sektore sozialeko erakundeetako hainbat mailatako profesionalekin, **zentroen direktorio** eguneratu bat egiteko.

Direktorio horretan bi zentro-mota sartu ziren: a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako **ostatua duten zentroak eta zerbitzuak**, lehen mailako arretakoak (udaletakoak) eta bigarren mailakoak (foralak), gizarte-bazterketa edo -premia egoeran dauden pertsonen eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen zuzendutakoak; eta b) CEAREk kudeatzen duen **asilo eta babeseko estatu-sareko ostatu-baliabideak**, egoera horien ebaluazio-fasearen barruan.

Aipatu bezala, ikerketa honen helburua ez da soilik bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopurua zenbatzea, haien egoera eta ezaugarri nagusiak ere ezagutu nahi ditu, gainera. Horretarako, ezinbestekoa da haien laguntza.

Guztira **864 lagunek hartu zuten parte, proposatu zitzaizen elkarrizketari erantzunez**. Oraingo honetan, kaleko zenbaketetan lokalizatutako pertsonen eta gaueko harrera-zentroetan (aterpetxeetan) gaua eman zutenei baino ez zitzaizen zuzendu elkarrizketa. ETHOS tipologiak **‘etxegabekoen’** barruan biltzen dituen egoerak dira.

Azkenik, aipatu behar da 2024ko zenbaketa aplikazio informatiko batetik egin dela, lehen aldiz. Aplikazio horri esker, orain arte erabiltzen ziren paperezko galdera-sortak **galdeketa digitalekin** ordeztu dira, eta, hala, informazioa errazago jaso da eta tratamendua arindu da.

Informazioa biltzeko erabiltzen diren tresnen artean garrantzitsuenak **galdetegia** da, bi zati desberdinez osatua: a) lokalizatutako pertsona guztien oinarritzko datuak biltzeko behaketa-fitxa bat; eta b) bakarkako elkarrizketa bat, 40 galdera baino gehixeagokoa, borondatez aplikatua.

2. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopurua.

Guztira, **4.326 pertsona aurkitu zituzten bizitegi-bazterketa larrian**. Horietatik guztietatik:

- **%36** (1.556 pertsona) **kale egoeran edo bizitzeko egokiak ez diren beste leku batzuetan** (eraikin abandonatuak, ibilgailuak edo lonjak) aurkitu zituzten gaueko zenbaketetan.
- Gainerako **%64 zentro mota hauek batean** zegoen: %12,9 gaueko harrera zentro eta zerbitzuetan; %7,4 indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako zentro eta pisuetan; %33,4 gizarteratzeko hainbat baliabidetan eta %10,3 asilo eta babeserako estatuko sarearen zentro espezifikoetan.
- Aurkitutako **4.326 pertsonetatik, 524 Araban aurkitu zituzten (%12,1), 2.282 Bizkaian (%52,8) eta 1.520 Gipuzkoan (%35,1)**.
- Lurralde bakoitzean kalean zeudenen proportzioa %23,3koa da Araban eta %34,5koa eta %39,9koa Gipuzkoan eta Bizkaian, hurrenez hurren.
- **Etxegabetasun-tasei dagokienez, lurralde bakoitzean bizitegi-bazterketa larriko egoerek eragin handixeagoa dute Gipuzkoan** (2,103 pertsona mila biztanleko), eta, ondoren, Bizkaian (% 1,984) eta Araban (% 1,593).

1. taula. Identifikatutako bizitegi-bazterketa larriko egoeren kopurua eta tasa, lurralde historikoen arabera (2024)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi
Pertsona kopurua				
Kalea eta bizitzeko egokiak ez diren beste leku batzuk	122	910	524	1.556
Gaueko harrera-zentroak eta -zerbitzuak	82	304	172	558
Indarkeria matxistaren biktimentzako zentroak eta pisuak	71	177	73	321
Gizarteratzeko zentroak eta pisuak	154	575	718	1.447
Asilo eskatzaileen zentroak (ebaluazio-fasea)	95	316	33	444
Guztira	524	2.282	1.520	4.326
Banaketa bertikala (%)				
Kalea eta bizitzeko egokiak ez diren beste leku batzuk	23,3%	39,9%	34,5%	36,0%
Gaueko harrera-zentroak eta -zerbitzuak	15,6%	13,3%	11,3%	12,9%
Indarkeria matxistaren biktimentzako zentroak eta pisuak	13,5%	7,8%	4,8%	7,4%
Gizarteratzeko zentroak eta pisuak	29,4%	25,2%	47,2%	33,4%
Asilo eskatzaileen zentroak (ebaluazio-fasea)	18,1%	13,8%	2,2%	10,3%
Guztira	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
Tasa* 1.000 biztanleko (%)				
Kalea eta bizitzeko egokiak ez diren beste leku batzuk	0,452	1,096	1,190	1,010
Gaueko harrera-zentroak eta -zerbitzuak	0,245	0,264	0,238	0,253
Indarkeria matxistaren biktimentzako zentroak eta pisuak	0,212	0,154	0,101	0,145
Gizarteratzeko zentroak eta pisuak	0,460	0,500	0,993	0,655
Asilo eskatzaileen zentroak (ebaluazio-fasea)	0,283	0,275	0,046	0,201
Guztira	1,563	1,984	2,103	1,959

Oharra: Kalean dauden pertsonen kasuan, gaueko zenbaketa kalean egin den 30 udalerrietako biztanleria kontuan hartuta kalkulatu da. Gainerako kasuetan, hiru lurralde historikoetako bakoitzean bizi diren biztanleen datuetan oinarrituta kalkulatu dira tasak. Kalkulu horiek 2024ko urtarrilaren 1ean eguneratutako biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuan oinarrituta egin dira.

3. ‘Kaleko’ pertsonen kopurua eta bilakaera

Taula honek ‘kalean’ dauden 1.556 pertsonen ezaugarri nagusiak laburbiltzen ditu.

Zentzu orokorrean ‘kale’ egoeran dauden pertsonen hitz egitean, zentzu hertsian, kalean, zein bizitzeko egitura desegokietan (eraikin abandonatuak, kanpadendak, txabolak, etab.) zeuden pertsonen ari gara.

2. taula. Kalean dauden pertsonen kopurua eta tasa, 1.000 biztanleko (2024)

	Kokapena			Sexua			Guztira	Tasa (%)
	Kalea [1]	Beste eremuak [2]	Informazio gabe	Gizonak	Emakumeak	Informazio gabe		
Araba								
Laudio	2	13	0	15	0	0	15	0,829
Vitoria-Gasteiz	54	51	2	101	6	0	107	0,425
Guztira	56	64	2	116	6	0	122	0,452
Bizkaia								
Barakaldo	41	15	4	56	3	1	60	0,603
Basauri	13	3	0	15	1	0	16	0,396
Bilbao	325	274	6	541	11	53	605	1,757
Durango	4	1	0	3	0	2	5	0,167
Erandio	1	24	0	11	0	14	25	1,033
Ermua	4	0	0	4	0	0	4	0,256
Galdakao	1	2	0	3	0	0	3	0,121
Getxo	48	80	2	119	9	2	130	1,726
Leioa	2	10	0	11	1	0	12	0,370
Lekeitio	1	3	0	3	1	0	4	0,561
Markina-Xemein	2	2	0	4	0	0	4	0,791
Ondarroa	0	3	0	3	0	0	3	0,366
Portugalete	2	2	0	4	0	0	4	0,089
Santurtzi	1	5	0	5	1	0	6	0,131
Sestao	6	16	0	21	1	0	22	0,792
Urduña	0	7	0	7	0	0	7	1,670
Guztira	451	447	12	810	28	72	910	1,096
Gipuzkoa								
Arrasate	2	3	0	4	1	0	5	0,228
Bergara	2	4	0	5	0	1	6	0,406
Donostia	148	262	3	370	24	19	413	2,258
Eibar	1	4	0	3	1	1	5	0,185
Errenteria	8	1	2	8	1	2	11	0,276
Hernani	6	2	2	8	1	1	10	0,489
Hondarribia	1	0	1	2	0	0	2	0,117
Irun	22	17	6	41	4	0	45	0,741
Legazpi	0	0	0	0	0	0	0	0,000
Oiartzun	0	5	1	5	1	0	6	0,578
Pasaia	4	4	0	4	1	3	8	0,475
Tolosa	12	1	0	11	1	1	13	0,651
Guztira	206	303	15	461	35	28	524	1,190
Euskadi								
Hiriburuak	527	587	11	1.012	41	72	1.125	1,444
Gainontzekoa	186	227	18	375	28	28	431	0,566
Guztira	713	814	29	1.387	69	100	1.556	1,010

[1] Kalea: aire zabalean, parkeetan, plazetan, kutzazainetan, eraikinen inguruan edo ekipamendu publikoetan edo azpiegiturretan (tunelak, autobideak, zubiak) lo egiten duten pertsonen egoerarik ikusgarrienak biltzen ditu. [2] Beste eremu batzuk: ibilgailuen barruan, eraikin abandonatu eta hondatueta eta eremu naturaletan dauden pertsonak sartzen dira, hau da, jendeak txaboletan edo kanpadendetan lo egiten duen hiriguneetatik urrun egon ohi diren kokalekuak.

'Kale' egoeran zenbatutako **1.556 pertsonetatik, %72,3 (1.125 pertsona) Euskadiko hiru hiriburuetako batean zeuden** eta, gainerakoak, gainerako 27 udalerrietako batean.

%65,4 Bilbon eta Donostian zeuden. Bilbon 605 pertsona aurkitu zituzten (Euskadiko guztien %38,9) eta Donostian 413 (%26,5). Jarraian Getxo (130 pertsona), Gasteiz (107) eta Barakaldo (60) hiriak ditugu. Gainerako pertsonak (241) gainerako 25 udalerrietatik 24tan aurkitu zituzten, Legazpi ez baitzuen inor zenbatu.

'Kalean' aurkitutako pertsona guztietatik 69 emakumeak ziren –hau da, %4,4–; 1.387 gizonak ziren eta gainerakoak, 100 kasu, informazio hori zehaztu ezin izan zen pertsonen zegozkien. Kalean 10 pertsona baino gehiago aurkitu zituzten udalerrietan, emakumeen kopurua ez zen %10etik gorakoa izan. Donostian eta Gasteizen kaleko emakumeen proportzioa %5,8 eta %5,6koa izan zen, hurrenez hurren; Bilbon, berriz, %1,8koa.

1.000 biztanleko tasa bihurtutako datu horien azterketak erakusten du hiru hiriburuetatik bik –zehazki, Donostiak eta Bilbok– dutela tasa altuena. Ondoren, Getxo, Urduña eta Erandio udalerririk bizkaitarrak daude.

Gauzez kalean egindako zenbaketetan aurkitu zituzten 1.556 pertsonen kokapena honakoa izan zen:

- **%45,9 kale egoeran zeuden zentzu hertsian**, hau da, hirigunean;
- **%28,9k abandonatutako eta hondatutako eraikinetan edo lonja edo garajeetan egiten zuen lo, leku ezkutuetan;**
- **%21,0 baso-eremu edo eremu naturaletan** aurkitu zen, oro har txaboletan edo kanpadendetan, inguru bakartuetan edo hiriko alde ikusgarrietatik urrun;
- eta gainerako **%2,5a ibilgailuen barruan** aurkitu zituzten, bai era isolatuan, bai aparkatzeko eremuen barruan.

Bilakaeraren ikuspegitik, bi joera ikusten dira: batetik, **zentzu hertsian kale-egoeran dauden pertsonen kopuruak gora egiten duela, eta, bestetik, neurri handiagoan, ezkutuan edo oharkabean dauden lekuetan** (eraikin abandonatuetan edo baso-eremu zein eremu naturaletan) **dauden kopuruak.**

Joera hori, 2022an jada ikusten zena, bereziki areagotu da 2024an, eta hori, hein handi batean, kontaketen metodologian ikuspegi kualifikatua sartzeari egotzi behar zaio.

- **Hazkunde hori areagotu egin da azken urteotan Euskadiko hiru hiriburuetan**, nahiz eta termino absolutuetan hazkunderik handiena Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuei dagokien.
- **20.000 biztanletik gorako udalerrien artean, talde batean goranzko joera nabari da, nahiko argia 2016 eta 2024 urteen artean.** Horiek Bilbotik gertu dauden herriak dira, alegia, **Barakaldo, Sestao, Leioa eta Getxo.**
- **Bizkaian**, ordea, badira horrelako egoeren **kopuru oso txikiak dituzten beste udalerririk batzuk**, eta inoiz ez dira 6 pertsona baino gehiago izaten. Horiek dira **Portugalete eta Santurtzi**, 45 mila biztanle baino gehiago dituztenak, eta **Galdakao eta Durango**, 25 eta 30 mila biztanlerekin, hurrenez hurren.
- **Gipuzkoan**, egoera ez da Bizkaikoa bezalakoa; izan ere, udalerririk handi samarrak eta Donostiatik gertu daudenak, **Irun eta Erretera, esaterako, Donostiak izan duen gorakada handitik urrun daude.** Erreterian, lokalizatutako pertsona-kopurua nahiko egonkor mantentzen da; Irunen, berriz, gorakada berri bat ikusten da, baina zifrak ez daude 2014an jasotakoetatik oso urrun.
- **Europako zenbait hiritako bilakaerari buruzko datuek** - FEANTSAk dioen bezala, beti ez baitago daturik - **goranzko joera bera erakusten dute azken urteetan.**

3. taula. Kalean dauden pertsonen bilakaera (2012-2024)

	2012	2014	2016	2018	2020*	2022	2024	2016-24 bilakaera
Amurrio	--	--	--	2	2	--	--	
Laudio	--	3	0	0	1	0	15	+15
Vitoria-Gasteiz	29	17	30	21	16	42	107	+77
Araba	29	20	30	23	19	42	122	
Arrigorriaga	--	--	--	--	--	4	--	
Barakaldo	--	9	12	30	10	25	60	+48
Basauri	--	--	--	--	--	--	16	
Bilbao	148	141	112	214	68	247	605	+493
Durango	--	--	2	--	--	4	5	+3
Erandio	--	--	3	3	--	8	25	+22
Ermua	--	--	--	--	--	0	4	
Galdakao	--	--	--	1	1	3	3	
Getxo	--	20	15	10	6	30	130	+115
Güeñes	--	--	0	0	--	--	--	
Iurreta	--	--	2	--	--	--	--	
Leioa	--	--	0	6	8	2	12	+12
Lekeitio	--	--	--	--	--	--	4	
Markina-Xemein	--	--	--	--	--	--	4	
Ondarroa	--	--	--	--	--	--	3	
Portugalete	--	2	2	0	1	0	4	+2
Santurtzi	--	3	5	1	--	1	6	+1
Sestao	--	0	0	2	1	16	22	+22
Urduña	--	--	0	0	--	--	7	+7
Zalla	--	--	2	0	--	--	--	
Bizkaia	148	175	155	267	95	340	910	
Arrasate	--	--	--	1	2	0	5	
Bergara	--	--	--	5	--	4	6	
Beasain	--	--	--	--	0	--	--	
Donostia	66	89	48	101	29	218	413	+365
Eibar	--	--	4	2	0	2	5	+1
Errenteria	--	--	8	5	9	16	11	+3
Hernani	--	--	0	1	--	--	10	+10
Hondarribia	--	--	--	--	--	--	2	+2
Irun	--	39	17	14	3	21	45	+28
Legazpi	--	--	0	1	--	0	0	
Oiartzun	--	--	--	6	4	--	6	
Pasaia	--	--	4	0	2	2	8	+4
Tolosa	--	--	3	4	0	13	13	+10
Zarautz	--	--	5	--	--	--	--	
Gipuzkoa	66	128	89	140	49	276	524	
Euskadi	243	323	274	430	163	658	1.556	
Udalerri kop.	[3]	[10]	[24]	[26]	[19]	[23]	[30]	

(–) Urte jakin batean gauez kalean zenbaketakik egin ez duten udalerriak.

*2020an jasotako datuek urte horretako maiatzean COVID-19aren pandemiaren ondorioz konfinamendu betean izandako egoera islatzen dute, eta horrek azaltzen du kalean lokalizatu zituzten pertsonen kopuru txikia.

4. Ostatua duten zentroetako pertsona-kopurua

Gauetz kalean egindako zenbaketetan aurkitutako 1.556 pertsonetz gain, udalek, foru-aldundiek eta hirugarren gizarte-sektoreko erakundeek emandako datuek erakusten dute **2024ko urriaren 23tik 24rako gauean 2.770 pertsona zeudela ostatu hartuta** ikerketa honetan parte hartu zuten 404 zentroetan.

- **Gaueko harrera-zentroetan eta -zerbitzuetan** –GZESren Zorroari buruzko Dekretuak jasotzen dituen 1.8 (udal-zerbitzuak) eta 2.3.2 (foru-zerbitzuak) zerbitzuen parekoak– 558 pertsona zeuden, hau da, ostatua duten zentroetan kontabilizatutako pertsonen %20,1. Guztira 24 zentro dira, hautatutako gauean guztira 653 plaza eskaintzen zituztenak eta okupazio tasa %85ekoa zutenak.
- **Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako zentro eta pisuek**, besteak beste, kaleko zenbaketan parte hartu zuten udalerrietako lehen mailako arretako harrera-pisuek (1.9.1.2) eta bigarren mailako (foraleko) harrera-zentro guztiek (2.4.6), %11,6 hartzen zuten. 68 baliabide horiek 460 plaza eskaintzen zituzten guztira, okupazio-tasa %70ekoa zen eta 321 pertsonari ematen zieten ostatu; horietatik ia erdia 18 urtetik beherakoak ziren (%48,5).
- **Gizarteratze-zentro eta -pisuek** (Zorroari buruzko Dekretuaren 1.9.1.1, 1.9.2, udal-zentroak eta 2.4.5 zentroak, forala, eta, salbuespen gisa, errubrika horietan sartzen ez diren beste batzuk) 298 baliabide zituzten guztira, eta kontaketa-gauean 1.761 pertsonak hartzen zuten ostatu, zentroetan ostatu hartutako guztien %63,6k. Zentro horien okupazio-tasa orokorra %82koa zen, eta baliabide bakoitzeko batez besteko okupazio-tasa 4,9 pertsonakoa zen.
- Azkenik, **ebaluazio-fasean asiloa eskatzen zuten pertsonen zuzendutako zentroetan**, ostatua zuten zentroetan kontabilizatutako pertsona guztien %16 zeuden. 14 zentro horiek 480 plaza zituzten guztira, eta zentro guztien batez besteko okupazio-tasarik altuena (%93) zuten; halaber, zentro handiak zirenez, zentroko batez besteko pertsona-kopururik altuena zuten: 31,7.

4. taula. Pertsonen banaketa ostatua duten zentroetan (2024)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi
Gaueko harrera-zentroak eta -zerbitzuak				
Zentro kopurua	2	15	7	24
Plaza kopurua	85	364	204	653
Ostatu hartutako pertsonen kopurua	82	304	172	558
Zentroko batez besteko pertsona kopurua	41,0	20,3	24,6	23,3
Batez besteko okupazio tasa (%)	%96	%84	%84	%85
Indarkeria matxista zentroak eta pisuak				
Zentro kopurua	17	34	17	68
Plaza kopurua	105	260	95	460
Ostatu hartutako pertsonen kopurua	71	177	73	321
Zentroko batez besteko pertsona kopurua	4,2	5,2	4,3	4,7
Batez besteko okupazio tasa (%)	%68	%68	%77	%70
Gizarteratzeko zentroak eta pisuak				
Zentro kopurua	38	108	152	298
Plaza kopurua	222	643	896	1.761
Ostatu hartutako pertsonen kopurua	154	575	718	1.447
Zentroko batez besteko pertsona kopurua	4,1	5,3	4,7	4,9
Batez besteko okupazio tasa (%)	%69	%89	%80	%82
Asilo eskatzaileen zentroak (ebaluazio-fasea)				
Zentro kopurua	2	11	1	14
Plaza kopurua	97	348	35	480
Ostatu hartutako pertsonen kopurua	95	316	33	444
Zentroko batez besteko pertsona kopurua	47,5	28,7	33,0	31,7
Batez besteko okupazio tasa (%)	%98	%91	%94	%93
Guztira				
Zentro kopurua	59	168	177	404
Plaza kopurua	509	1.615	1.230	3.354
Ostatu hartutako pertsonen kopurua	402	1.372	996	2.770
Zentroko batez besteko pertsona kopurua	6,8	8,2	5,6	6,9
Batez besteko okupazio tasa (%)	%79	%85	%81	%83


5. Etxegabeko pertsonak: joera nagusiak

Ondoren laburtzen den analisiak **ETHOSen 'etxegabekoen' kategoria kontzeptualaren** barruan bildutako bizitegi-egoerak ditu ardatz, azken urteetan gehien hazi diren egoerak baitira.

Egoera horien barruan sartzen ditugu, alde batetik, kalean aurkitu ziren pertsonak (nahiz eta parte hartu duten udalerrien kopurua aldatu egin den denboran zehar), eta, bestetik, gaueko harrera-zentro edo -zerbitzuren batean ostatu hartuta egon zirenak.

Bilakaerari buruzko datuek agerian uzten dute 2018az geroztik nabarmen eta etengabe ari dela hazten pertsona etxegabeen kopurua; 2022an, murrizketa izan da, eta, 2022tik 2024ra, gorakada handia.

1. grafikoa. Pertsona etxegabeen kopuruaren bilakaera (2012-2024)



Pertsona etxegabeen ezaugarri soziodemografiko nagusien bilakaera aztertuta, honako hau ondorioztatzen da:

- **Emakumeen presentzia oso txikia da**, eta nahiz eta 2018tik hona haien kopuruak apur bat gora egin duen, haien pisu espezifikoak behera egin du. Emakumeak ziren 2018an identifikatutako pertsona etxegabeen %11, eta 2024an aurkitutakoen %6 dira.


Gizonen artean ez bezala, non gizon atzeritarren eta ez atzeritarren arteko desoreka numerikoa nabarmena den, emakumeen artean ia ez dago alderik, eta bi taldeetako emakumeen kopurua oso maila parekatu eta minoritarioetan mantentzen da.

- **2018tik aurrera 30 urtetik beherako pertsonen presentzia asko handitu da termino absolutu eta erlatiboetan.** 2016an pertsona etxegabe guztien %25 besterik ez baziren, 2024an %41 dira. Talde nagusia 30 eta 54 urte bitartekoena da, eta 55 urtetik gorakoena, berriz, apenas hazi den.


Aztertzen diren egoeren artean gizon gazte ez-atzeritarren presentzia are ezohikoagoa da emakumeena baino.

- **2018tik apenas aldatu den atzerrian jaio ez direnen kopurua. Aldiz, atzeritar jatorriko pertsonen kopurua nabarmen hazi da**, eta gaur egun %84 dira, 2012an %69 ziren arren.


2a grafikoa. Pertsona etxegabeen bilakaera sexuaren arabera (2012-2024)




2b grafikoa. Pertsona etxegabeen bilakaera adin-taldearen arabera (2012-2024)



2c grafikoa. Pertsona etxegabeen bilakaera jatorriaren arabera (2012-2024)



2d grafikoa. Pertsona etxegabeen bilakaera sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera (2012-2024)



6. Pertsona etxegabeak: egoera eta bizi-baldintzak

Azken epigrafe honetan, langile boluntarioek eta profesionalek elkarriketatuak izatea onartu zuten pertsona etxegabeei egindako **banakako 864 elkarriketen emaitzen laburpena** eskaintzen da.

- Emaitzak tentuz interpretatu behar dira, ez baitira estatistikoki adierazgarriak aipatutako egoitza-egoeretan identifikatutako pertsona guztien artean, 2.111 pertsona izan baitziren.
- Berrri ere, esan beharra dago egoera jakin batean eta gau jakin batean, baita ondoko egunetan ere, pertsona kopuru mugatu baten argazkia dela.

Jatorria, egoera administratiboa eta sustraitzea

Jaioterria. Pertsona etxegabeen %83 atzerrian jaio da, %11 Euskadin eta %6 Estatuko gainerako lekuetan. Atzeritar jatorriko pertsona etxegabeen proportzioa handiagoa da gizonen artean (%84,6) emakumeen artean baino (%59,6), baita 30 urtetik beherakoen artean ere (%96,5).

Jatorrizko kontinentea. Atzerrian jaiotako pertsona gehienak (%79,4) Afrika iparraldekoak dira. Horien atzetik datoz Sahelen eta Afrikako gainerako herrialdeetan jaiotako pertsonak (%9,5), Amerikan (%5,3) eta Europako beste herrialde batzuetan jaiotakoak (%4,6). Atzerrian jaiotako etxerik gabeko emakume guztien %44,1 amerikar kontinentetik dator.

Bizileku- eta lan-baimenak. Atzeritarren %80k baino gehiagok ez du bizileku-baimenik (%82,6), ezta lan-baimenik ere (%86,6). Baimen horien erabilgarritasuna zertxobait altuagoa da emakumeen, 55 urte edo gehiagoko pertsonen eta gaueko harrera-zentroetan edo -zerbitzuetan ostatu hartzen dutenen artean.

Erroldatzea. Pertsona etxegabeen %72k Euskadiko udalerriren batean erroldatuta dagoela adierazi du; %2,4k Euskaditik kanpo dagoela esan du eta %24k ez dagoela inongo udalerritan erroldatuta. Erroldatutako pertsonen proportzioa handiagoa da emakumeen artean (%82,5) gizonen artean baino (%71,3), eta handiagoa da 55 urtetik gorakoen artean (%86,6) eta gaueko harrera-zentroetan edo -zerbitzuetan gaua ematen dutenen artean (%88,4).

Euskadin igarotako denbora. Euskadin, pertsona etxegabeen %38,8k urtebete baino gutxiago darama, %26,6k urtebete eta bi urte artean, eta %22,3k bost urte edo gehiago, Euskadin bizitza osoa daramatela adierazi duten pertsonak barne hartuta (%11,6). Eboluzioaren ikuspegitik, nabarmentzekoa da Euskadin denbora gutxi daramaten pertsona etxegabeen gorakada: 2016an, %25 ziren urtebete baino gutxiago daramatenak; 2024an, berriz, %39 dira.

Ibilbideak. Atzeritar jatorriko pertsona etxegabeei Espainiara iristen diren lehen lekuari buruz galdetuta, ia erdiek (%49,7) esan dute Euskadira iritsi aurretik beste probintzia batean bizi izan direla, eta proportzio txikixeago batek (%47,7) adierazi du zuzenean iritsi direla euskal lurraldera.

Sustraitzea. Pertsona helduen gehiengoak (%83) adierazi du aurkitu zuten udalerrian geratu nahi duela; %8,7k, berriz, oraindik ez daki edo ez du erabaki, eta %6,1ek soilik adierazi du beste leku batera joateko asmoa duela. Pertsona helduen artean, oro har, iraunkortasun-nahi handia nabari da 2012tik, eta ez da asko aldatu aldi horretan.

Etxegabetasun arrazoiak, diskriminazioaren pertzepzioa eta biktimizazioak

Etxegabetasunaren arrazoiak. Etxegabetasunak lotura estua du etxebizitza eskuratzeko ezintasunarekin, baina fenomeno konplexu eta multifaktoriala da, eta bazterketa-dinamika desberdinek parte hartzen dute pertsonen bizitzako beste esparru batzuetan, hala nola lan-arloan, ekonomian eta gizartean.

Ikuspegi horretatik, etxegabetasuna eragiten duten faktoreak lau kausa-multzo handitan bil daitezke: egiturazkoak, instituzionalak, harremanei dagozkienak eta pertsonalak. Arrazoi horiei buruz zuzenean galdetuta, jasotako erantzunen arabera etxegabetasunaren arrazoi nagusia egitura-faktoreak dira; hala adierazi dute kasuen %74,5ean. Kategoria horren barruan, arazo ekonomikoak (%46,5), lan-arazoak (%35,1) eta egoera administratibo irregularraren ondoriozko oztopoak (%31,3) dira nagusi. Urrutitik begiratuta, galdetutako pertsonen %21,3k faktore pertsonalak aipatu dituzte, eta %11,2k, berriz, faktore erlazionalak. %4,4k bakarrik aipatu dituzte instituzioren batetik irtetearekin edo harrera-baliabideren bat uztearekin lotutako faktore instituzionalak.

Diskriminazioa. Pertsona etxegabeen %55,8k adierazi du diskriminatuta sentitu dela etxerik ez izateagatik. Horien artean, %30,1ek noizbait diskriminatua izan dela diote, %17,7k askotan eta %8k etengabe. Diskriminazio-pertzepzio hori ohikoagoa da emakumeen artean (%64,9; gizonen artean, berriz, %55,1) eta 55 urte edo gehiagoko pertsonen artean (%61), gainerako adin-taldeetan baino.

Biktimizazioak. Pertsona helduen artean ohikoenak diruaren edo bestelako ondasunen lapurretak (%50) eta irainak edo mehatxuak (%42) dira. Gainera, %28k eraso fisikoak jasan dituztela adierazi dute, eta %5ek sexu erasoren bat jasan dutela. Gertaera horien eragina, kasu guztietan, handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, bereziki sexu-erasoei dagokienez; izan ere, emakumeen %29,8k aipatzen ditu, eta gizonen %3,5ek.

Familia-harremanak eta bakardadea

Familia-harremanak. Pertsona etxegabeen %14,4k bakarrik du ohiko harreman presentziala duen senideren bat. Harreman mota horien prebalentzia handiagoa da emakumeen artean (%31,6) gizonen artean baino (%12,9). Familia-harreman presentzialak dituztenen proportzioa nabarmen txikiagoa da 30 urtetik beherakoen artean (%8,4) eta, oro har, atzeritar jatorriko pertsonen artean (%8,8).

Bestalde, familia-harreman ez-presentzialei buruz (telefono edo internet bidez) galdetuta, nabarmen handitzen da familia-harremana dutenen ehunekoa, eta guztizkoaren %74,2ra iristen da. Harreman presentzialekin ez bezala, harreman birtualak ohikoagoak dira gizonen artean (%75,6) emakumeen artean (%54,4) eta 30 urtetik beherakoen artean (%85,9) baino.

Bakardadea. Etxegabeen erdiek (%50,3) diote egunaren zatirik handiena bakarrik ematen dutela. Bakardadearen eragina pixka bat handiagoa da emakumeen artean (%56,1), atzeritar ez diren pertsonen artean (%57,8) eta 55 urte edo gehiagoko pertsonen artean (%58,5).

Familia-harremanei eta bakardadeari buruzko datuak konbinatzean, ikusten da hamar pertsonatik lauk isolamendu-egoera bati aurre egin behar diotela, ez baitute inolako harreman presentzialik senideekin, eta, gainera, egunaren zatirik handiena bakarrik igarotzen dute.

Ikasketa-maila, jarduera, diru-sarrerak eta DBE

Ikasketa maila. Hiru lagunetik bat (%33,8), asko jota, lehen hezkuntzara iritsi da, eta %31,5ek oinarrizko bigarren hezkuntza du. Gainerakoek goi-mailako bigarren hezkuntza (%22,8) edo unibertsitate-ikasketak (%5,7) dituzte. Bilakaerari buruzko datuek erakusten dute nabarmen murriztu dela ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen proportzioa.

Prestakuntza. Pertsona etxegabeen %48,6k adierazi dute ikasten edo prestakuntza-motaren bat egiten ari direla (hizkuntzak ikastea barne), lana lortu edo egungoa hobetu ahal izateko. Adina da aldagai nagusia, izan ere, 30 urtetik beherako pertsonen %64,9k egiten dituzte prestakuntza-jarduerak; 30 eta 54 urte bitartekoen artean, berriz, %40,9k, eta 54 urtetik gorakoaren artean, %14,6k.

Lan-jarduera. Gaur egun, hamar lagunetik bik ordaindutako lan edo jardueraren bat egiten dute, nahiz eta lan hori adinaren arabera aldatzen den, eta 30 eta 54 urte bitarteko pertsonetan gertatzen da gehien (%24). Datuetatik ondoriozta daiteke, halaber, kalean bizi diren pertsonen proportzio handiagoak egiten duela jardueraren bat (%23), gehienetan ekonomia informalaren barruan. Gehien egiten den ordaindutako lan-jarduera txatarraren bilketa eta salmenta da (kasuen %47,1); horren atzetik, eraikuntzako lanak (%7,1), mantentze-lanak (%6,5) eta ostalaritza (%5,3).

Diru-sarreraren iturriak. Azken hilabeteen diru-sarrerarik izan duten galdetu zaienean, elkarriketatutako pertsonen %35,5ek erantzun du prestazio edo laguntza publikoren bat jaso duela; herenak, berriz, adierazi du izaera pribatuko diru-sarrerak lortu dituela, laguntzako gizarte-saretik, kalean eskatuzetik edo, neurri txikiagoan, hirugarren sektoreko erakunderen batetik. Bestalde, %15,2k adierazi du lan-jardueraren batetik eratorritako diru-sarrerak jaso dituela, eta hamarretik ia lauk (%38,8) adierazi du ez duela inolako diru-sarrerarik.

Emakumeek gizonek baino gehiago jasotzen dituzte prestazio edo laguntza publikoak (%47,4 eta %34,7, hurrenez hurren), baita izaera pribatuko diru-sarrerak ere (%52,6 eta %31,7, hurrenez hurren). Era berean, prestazioak edo laguntza publikoak jasotzea askoz ere garrantzitsuagoa da atzerritarrak ez diren pertsonen artean (%60,5) atzeritarren artean baino (%30,4). Prestazio edo laguntza publikoren bat jasotzen duten pertsona etxegabeen ehunekoa handitu egiten da adinean aurrera egin ahala: %27,3 30 urtetik beherakoan artean, %39,2 30 eta 54 urte bitartekoan artean, eta erdia baino gehiago adinez nagusien artean (%54,9).

Pertsona batek diru-sarrerak hainbat iturritatik jaso ditzakeenez, egoera horien azterketa konbinatuak agerian uzten du elkarriketatutako pertsonen %15,2k, gutxienez, ordainsari ekonomikoren bat jasoko zukeela azken hilabeteen bere lanagatik; %20,4k ez zukeen inolako lan-jarduerarik egingo diru-sarrerekin, baina prestazio edo laguntza publikoren bat jasoko zukeen; %12,3k laguntza pribatuak baino ez zituzkeen jasoko; gainerako %44,9k, berriz, diru-sarrerarik ez dutela adierazten duten pertsonak dira ezezagunei eskatutako dirua salbuespen gisa hartuta.

DBEari buruzko ezagutza. Pertsona etxegabeen erdiak baino gehiagok (%54,5ek) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) ezagutzen du edo entzun du. Talde horretako %8,8k ezagutzen eta jasotzen du, eta gehienek (%45,7) ez dute jasotzen, nahiz eta jakinaren gainean egon badagoela. Hamar pertsonatik lauk baino gehixeagok (%41,2) ez dakite prestazio hori dagoenik. DBEaren ezagutza askoz ere zabaldago dago emakumeen artean (%78,9) gizoneen artean baino (%52,8), Estatu barruan jaioetakoan artean (%92,5) atzeritar jatorriko pertsonen artean baino (%46,7) eta adin nagusigokoen artean.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzea. Elkarriketatutako pertsonen %9k dio DBEaren onuraduna dela, hau da, prestazio ekonomiko horren berri duten guztien %16,1ek. Logikoa denez, DBE gehien ezagutzen duten taldeak dira, halaber, gehien erabiltzen dutenak, zehazki: atzeritar jatorrikoak ez diren pertsonak (guztien %27k jasotzen dute DBE), 55 urte edo gehiagokoak (%23) eta emakumeak (%23). Nabarmenezkoa da prestazio horrek oso irismen txikia duela gazteenen artean —30 urtetik beherako pertsonen %2k bakarrik jasotzen du DBE—. Gaueko harrera-zentroetan edo -zerbitzuetan ostatu hartzen duten pertsonen (%12) eta kalean bizi direnen (%6) artean ere alde nabarmena dago DBE-erako sarbidean.

Etxegabetasunetik ateratzeko lehentasunak eta zerbitzuen erabilera eta balorazioa

Zerbitzuen erabilera. Azken hiru hilabeteetan hainbat zerbitzu nola erabili dituzten galdetuta, galdetutako pertsonen %61,2k adierazi du ostatua duten zerbitzuetara jo duela, hala nola aterpetxeetara, gau-zentroetara eta gizarteratze-pisuetara. Gaueko zenbaketan horrelako baliabideetan zebiltzan pertsonak kanpoan utzita (kopuru hori %100era iristen da), kalean lo egiten duten pertsonen %28,6k horrelako ostatuak erabiliko zituzketen duela gutxi.

Ostatu horiekin batera, osasun-zerbitzuak dira etxegabe pertsonen artean gehien erabiltzen direnak (bai lehen mailako arretakoak, bai arreta espezializatukoak edo ospitalekoak). Azken hiru hilabeteetan, elkarriketatutako pertsonen %60,9k erabili dituzte zerbitzu horiek.

Hirugarrenik, udaletako gizarte zerbitzuak daude: pertsona etxegabeen erdiak baino gehiagok (%55,4) berriki jo du zerbitzu horretara. Halaber, proportzio txikixeago batek (%48,8) Lanbideren bulegoren batera jo du. Zifra esanguratsu horrek adierazten du enplegura eta gizarteratzera bideratutako baliabideak asko erabiltzen direla.

Erabilera murriztagoa izan dute jantoki sozialek (%46,4), eguneko zentroek edo eguneko arreta-zerbitzuek (%42,7) eta gizarte-larrialdietako zerbitzuek (%35,9). Gutxien erabiltzen diren zerbitzuen artean daude osasun mentaleko zentroak (elkarriketatutako pertsonen %10,9k erabiltzen dituzte), laneratzeko tailerrak edo enpresak (%12,6) eta kaleko hezkuntzako taldeak (%28).

Bilakaerari dagokionez, gaueko ostatu-zerbitzuetara jotzen dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa (ez kopurua) nabarmen jaitsi da: gero eta jende gehiagok erabiltzen duen baliabidea izan arren, haietara jo dutela adierazi duten pertsona etxegabeen proportzioa %81etik jaitsi da 2012an, eta %63ra iritsi da 2024an. Kontrara, nabarmen igo da udaleko gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen proportzioa: 2012an, pertsonen %38k erabiltzen zituen; 2024an, berriz, %58k.

Ostatua duten zerbitzuen balorazioa. Gaueko harrerarako zentro edo zerbitzuen balorazioa eta talde profesionalaren aldetik jasotako arreta positiboa da. Zentro horietako baldintza fisikoak onak edo oso onak direla uste dute galdetutako hamar pertsonatik zortzik. Bestalde, %18,7k uste du instalazioak egoera erregularrean, txarrean edo oso txarrean daudela. Zentroetako langile profesionalen aldetik jasotako arretari buruz galdetuta, elkarriketatutako pertsona gehienek (%90,4) uste dute arretaren kalitatea ona edo oso ona dela. Ostatua duten baliabideetan lokalizatutako pertsonen %8,1ek soilik baloratzen du arreta erregularra, txarra edo oso txarra dela.

Etxegabetasunetik ateratzeko baliabideak edo zerbitzuak. Etxegabetasun egoeratik irteteko zer elementu edo laguntza beharko lituzketen galdetuta, elkarriketatutako pertsonen %43,8k adierazi du etxebizitza edo logela bat izango lukeela lehen aukera, eta, ondoren, bere egoera administratiboa erregularizatzea (%17,8) eta enplegua lortzea (%16,9).

Aztertutako talde guztiak kontuan hartuta, ia ez dago alderik etxebizitza etxegabetasunetik ateratzeko bide nagusitzat hartzeko orduan. Enpleguari ematen zaion garrantzia (ez du zertan lehen aukera izan) handiagoa da atzeritar jatorriko pertsonen artean (%69,5) atzeritar ez direnen artean baino (%47,6); emakumeek, berriz, etxegabetasunetik irteteko faktore garrantzitsutzat jotzen dituzte prestazio ekonomikoak gizonen baino gehiago (%56,1; %24,9).

Halaber, atzeritar jatorriko gizonen atzeritar ez direnek baino askoz ere gehiago jotzen dute garrantzitsutzat lanerako prestakuntza edo orientazioa. Gizonen gazte atzeritarren ia erdiek lehen, bigarren edo hirugarren aukera gisa aipatzen dute; batez beste adin handiagoa duten jatorri ez-atzeritarreko gizonen artean, berriz, %6,5ek.

Osasun-egoera eta osasun-arreta

Osasun txartela. Pertsona etxegabearen %62k dio osasun-txartela duela. Atzeritar gutxiagok dute txartela (%56,8) atzeritarrek ez direnak baino (%88,4). Atzeritar jatorriko pertsonen batez besteko adina txikiagoa denez, zaharrenen artean ere osasun-txartela gehiago dago eskuragarri. Nolanahi ere, eboluzio-analisiak ez du gorabehera handirik azaleratu gai horretan; izan ere, osasun-txartelik ez duten pertsona etxegabeen proportzioa nahiko egonkor mantendu da azken 12 urteetan, herena gutxi gorabehera.

Osasunaren autobalorazioa. Elkarriketatutako pertsonen %54,4k ontzat edo oso ontzat jo du haien osasuna; %28,6k, berriz, hala-moduzkotzat; eta %13,1ek txartzat edo oso txartzat jo du. Espero zitekeen bezala, osasun onaren pertzepzioa txikiagotu egiten da adinean aurrera egin ahala.

Gazteen %60,3k osasun ona edo oso ona duela uste du; 55 urtetik gorakoen artean, berriz, %46,3k. Osasun onaren edo oso onaren pertzepzioa ere handiagoa da atzeritarren artean (%56,2) atzeritarrek ez direnen artean baino (%46,3). Datuen arabera, kalean lo egiten duten pertsonen artean (%49) eta gaueko harrera-zentroetan edo -zerbitzuetan lo egiten dutenen artean (%60,8) aldeak daude osasun onaren pertzepzioan.

Azterketa honetako datuak Euskadiko Osasun Inkestako emaitzekin alderatzean, ikusten da Euskadiko biztanleria osoaren osasun-egoera pertsona etxegabeena baino nabarmen hobea dela. Hala, 35 eta 54 urte bitarteko euskal emakumeen %1ek soilik ikusten du bere osasuna txarra edo oso txarra dela; adin horretako etxerik gabeko emakumeen ia heren batek, berriz, osasun-egoera txarra du.

Osasun-arazo larriak edo kronikoak. Pertsona helduen %28,5ek adierazi du horrelako arazoren bat duela. Arazo horien prebalentzia askoz handiagoa da emakumeen artean (%45,6) gizonen artean baino (%27,3). Halaber, arazo horien intzidentzia handiagoa da Estatuan jaiotakoen artean (%45,6) atzerriatik etorritakoen aldean (%25).

Gaixotasunak edo osasun-arazoak. Arazo larri edo kroniko ohikoenak, %7tik gorako prebalentziarekin, traumatismoak eta gaixotasun osteoartikularrak dira, arnas aparatuko arazoekin batera. Buru-nahasmenduek eta -gaixotasunek ere prebalentzia handia dute, kontsultatutako pertsonen %6,4ri eragiten baitiete.

Buru-nahasmenduak eta buru-gaixotasunak ohikoagoak dira aterpetxeetan ostatu hartzen duten pertsonen artean klean lo egiten dutenen aldean, eta jatorri ez-atzeritarreko gizonen artean, gainerako taldeen aldean.

Osasun-arreta. Elkarriketatutako pertsonen %11,1ek adierazi du osasun-arazo larri edo kronikoren bat duela eta ez duela tratamendurik jasotzen; %9,8k, berriz, adierazi du horrelako arazoetarako tratamendu egokia jasotzen duela. Elkarriketatutako pertsonen %6,6k, bestalde, horrelako arazoak ditu, baina tratamendu partzial bat baino ez luke jasoko (arazo horietako batzuentzat).

Osasun-arazo larri edo kronikoren bat duela adierazten duen pertsona-multzotik, tratamendu bat —partziala edo osoa— jasotzeko aukera handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Tratamendua jasotzeko aukera handiagoa da, halaber, zaharreneen artean, atzeritar jatorria ez duten pertsonen artean eta gaua gaueko harrera-zentroetan ematen dutenen artean.